



Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia

**ERRONKARIBARKO BATZORDE NAGUSIAK
2025EKO LEINABENTUAREN 12AN EGINDAKO
EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA**

2025eko leinabentuaren 12ko 18:00etan, Erronkaribarko etxean, Batzorde Nagusiak ezohiko osoko bilkura egin du, Asier Gil Artuch idazkaria bertan izanik eta Amparo Viñuales Gale Erronkariko Aiza Bulguko alkatea Batzordeburu izanik, bera eta Jesus Cruchaga Mainz eta Jon Artutx Alastuey Erronkariko ordezkari gisa agertuz.

Gainerako hirien izenean ordezkari hauek bertaratu dira:

UZTARROZE: Belen Marko Indurain

IZABA: Carlos Anaut Abadia

URZAINKI: Tomas Urzainqui Mina eta Juan Carlos Urzainqui Salvoch

GARDE: Jose Javier Echandi Sarries

BIDANKOZE: Tomas Pasquel Ayechu

BURGI: Flavien Paget eta Paula Urzainqui Recari

Batzordeburuak bilkura hasi eta gainerendari jarraiturik honako erabaki hauek hartu dira:

1- BATZORDEBURUAREN EBAZPENAK

37/2025 ebazpena, 2025eko agorrilaren 25ekoa

37/2025 ebazpenaren berri eman da, Jose Ignacio Ubau Galarza langileari familia-kontziliazioagatik % 50eko lanaldi-murrizketa eman diona, 2025eko agorrilaren 1etik 31ra, betiere zerbitzuaren beharren arabera. Bestalde, eskatu zaio egiteke dituen orduak berreskuratzeko proposamen bat aurkez dezan.

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE LA
JUNTA GENERAL DEL VALLE DE RONCAL
CELEBRADA EL DÍA 12 DE NOVIEMBRE DE 2025**

En la villa de Roncal, en la Casa del Valle, siendo las 18:00 horas del día 12 de noviembre de dos mil veinticinco, con asistencia del Secretario D. Asier Gil Artuch y bajo la Presidencia de la alcaldesa de la Villa de Roncal Dña. Amparo Viñuales Galé, que concurre junto con D. Jesus Cruchaga Mainz, D. Jon Artutx Alastuey se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en sesión extraordinaria, concurriendo por las demás villas la representación siguiente:

UZTARROZ: Dña. Belen Marko Indurain

ISABA: D. Carlos Anaut Abadía

URZAINQUI: D. Tomas Urzainqui Mina, D. Juan Carlos Urzainqui Salvoch

GARDE: D. José Javier Echandi Sarriés

VIDANGOZ: D. Tomas Pasquel Ayechu

BURGI: D. Flavien Paget, Dña. Paula Urzainqui Recari

1- RESOLUCIONES DE PRESIDENCIA.

Resolución de Presidencia 37/2025 de 25 de agosto de 2025.

Se da cuenta de la resolución 37/2025 por la que se concede al trabajador D. Jose Ignacio Ubau Galarza una reducción de jornada del 50 % del 1 al 31 de agosto de 2025 por motivos de conciliación familiar, supeditada a las necesidades del servicio. Asimismo, se le requiere presentar la propuesta para la recuperación de las horas que tiene pendientes.



**Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia**

38/2025 ebazpena, 2025eko agorrilaren 26koa

38/2025 ebazpenaren berri eman da, Erronkaribarko Batzorde Nagusiko haur-hezitzaile lanpostua aldi baterako kontratatzeko izangaien behin-behineko zerrenda onetsi duena, egindako hautaketa-prozesuaren ondorioz.

Hiru egun balioduneko epea ireki da interesdunek balizko erreklamazioak aurkez ditzaten. Horiek ebatzi ondoren, behin betiko zerrenda onetsiko da eta zerrendako lehenengoa kontratatuko da. Horrek uko eginez gero, zerrendako hurrengoari deituko zaio, eta zerrendan aurrera eginen da lanpostua bete arte.

39/2025 ebazpena, 2025eko agorrilaren 29koa

39/2025 ebazpenaren berri eman da, Goizargi Barba Esparza haur-hezitzaileari interes partikularragatik borondatezko eszedentzia eman diona, 2025eko setemeraren 1etik 2026ko garilaren 23ra, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren 46.c) artikuluekin bat. Eszedentziak lan-harremana etetea dakarrenez, langileak ez du ordainsaririk jasoko, eta, taldeari eta antzinasunari eutsiko badie ere, eszedentzian emandako denbora ez zaio ezein ondoriotarako zenbatuko.

40/2025 ebazpena, 2025eko setemeraren 1ekoa

40/2025 ebazpenaren berri eman da, 1., 2. eta 3. baso-loteen enkanterako eskaintzak aurkezteko epea 2025eko setemeraren 4ko 15:00ak arte luzatu duena. Baldintzen agirian akats bat antzeman da, eta horrek eskaintzen prestaketari eragin liezaioke.

Erabaki da Nafarroako kontratazioaren atarian argibide bat argitaratzea; gainerako

Resolución de Presidencia 38/2025 de 26 de agosto de 2025

Se da cuenta de la Resolución de Presidencia 38/2025 de 26 de agosto de 2025 por la que se aprueba la relación provisional de aspirantes para la contratación temporal como Educador/a Infantil de la Junta General del Valle de Roncal, resultante del proceso selectivo celebrado.

Se abre un plazo de tres días hábiles para que los interesados presenten reclamaciones. Una vez resueltas, se aprobará la lista definitiva y se procederá a la contratación de la persona que figure en primer lugar, avanzando en la lista en caso de renuncia.

Resolución de Presidencia 39/2025 de 29 de agosto de 2025

Se da cuenta de la Resolución de Presidencia 39/2025 de 29 de agosto de 2025 por la que se concede a Dña. Goizargi Barba Esparza, Educadora Infantil, una excedencia voluntaria por interés particular desde el 1 de septiembre de 2025 hasta el 23 de julio de 2026, conforme al artículo 46.c) del Convenio Colectivo aplicable. La excedencia implica la suspensión de la relación laboral sin derecho a retribuciones, manteniendo grupo y antigüedad, aunque el tiempo en dicha situación no será computable a ningún efecto.

Resolución de Presidencia 40/2025 de 1 de septiembre de 2025

Se da cuenta de la Resolución de Presidencia 40/2025 de 1 de septiembre de 2025 por la que se amplía hasta el 4 de septiembre de 2025 a las 15:00 horas el plazo de presentación de ofertas para la subasta de los lotes forestales 1, 2 y 3, debido a un error detectado en los pliegos técnicos que podría afectar a la preparación de las ofertas. Se acuerda publicar una aclaración en el portal de contratación de Navarra y mantener inalteradas el resto de las condiciones del pliego.



**Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia**

baldintzak bere horretan utziko dira.

41/2025 ebazpena, 2025eko setemeraren 9koa

41/2025 ebazpenaren berri eman da, INIZIA Turismo y Medio Ambiente SL enpresari «Erronkaribarko BTT eremua» kontratuaren 2. loteagatik jarritako behin betiko bermea itzultzeko eta 1. loteagatik jarritako banku-abala ezerezteko baimena eman duena, 36 hilabeteko berme-epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren.

42/2025 ebazpena, 2025eko setemeraren 22koa

42/2025 ebazpenaren berri eman da, Tomas Urzainqui Minak oihan-enkanterako eskaintzak aurkezteko epea luzatzearen aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ezetsi duena, luzapena 2/2018 Foru Legearekin bat datorrela iritzita. Erabaki hura segurtasun juridikoa eta lizitatzailleen arteko berdintasuna bermatzeko hartu zen, baldintzen agirian akats tekniko bat hauteman ondoren. 40/2025 ebazpena berretsi da, eta errekurtso-jartzaileari errekurtso-bideen berri eman zaio.

43/2025 ebazpena, 2025eko setemeraren 23koa

43/2025 ebazpenaren berri eman da, JV20 Forest enpresari baso-aprobetxamenduen enkanteko 1. eta 3. loteak behin-behinean esleitu dizkiona, 108.130,56 eta 156.749,90 euroan, hurrenez hurren. 2. lotea esleitu gabe geratu da eskaintzarik aurkeztu ez delako.

44/2025 ebazpena, 2025eko urrietaren 13koa

44/2025 ebazpenaren berri eman da, JV20 Forest enpresari baso-aprobetxamenduen enkanteko 1. eta 3. loteak behin betiko esleitu

Resolución de Presidencia 41/2025 de 9 de septiembre de 2025

Se da cuenta de la Resolución de Presidencia 41/2025 de 9 de septiembre de 2025 por la que se autoriza la devolución de la garantía definitiva del Lote 2 y la cancelación del aval bancario del Lote 1 del contrato "ESPACIO BTT VALLE DE RONCAL" a favor de la empresa INIZIA Turismo y Medio Ambiente S.L., tras haber transcurrido el plazo de garantía de 36 meses sin reclamaciones.

Resolución de Presidencia 42/2025 de 22 de septiembre de 2025

Se da cuenta de la Resolución de Presidencia 42/2025 de 22 de septiembre de 2025 por la que se desestima el recurso de reposición presentado por D. Tomas Urzainqui Mina contra la ampliación del plazo de presentación de ofertas en la subasta forestal, al considerarse ajustada a la Ley Foral 2/2018 y adoptada para garantizar la seguridad jurídica y la igualdad entre licitadores tras detectarse un error técnico en los pliegos. Se confirma la validez de la Resolución 40/2025 y se informa al recurrente de las vías de recurso disponibles.

Resolución de Presidencia 43/2025 de 23 de septiembre de 2025

Se da cuenta de la Resolución de Presidencia 43/2025 de 23 de septiembre de 2025 por la que se adjudican provisionalmente a la empresa JV20 Forest los Lotes 1 y 3 de la subasta de aprovechamientos forestales, por un total de 108.130,56 € y 156.749,90 € respectivamente quedando desierto el Lote 2 al no presentarse ofertas.

Resolución de Presidencia 44/2025 de 13 de octubre de 2025

Se da cuenta de la Resolución de Presidencia 44/2025 de 13 de octubre de 2025 por la que se adjudican definitivamente a la empresa JV20 Forest los Lotes 1 y 3 de la subasta



dizkiona, 108.130,56 eta 156.749,90 euroan, hurrenez hurren, eskaintza ekonomiko onuragarrienak aurkeztu dituelako. Era berean, enpresari eskatu zaio behin betiko fidantza eratzeko, baldintzen agirian eskatutako agiriak aurkezteko eta prezioaren % 50aren ordainketa egitea edo abala aurkeztea, aprobetxamendua behar bezala gauzatuko dela bermatzeko.

2- 2024KO AURREKONTU OROKOR BAKARRAREN LIKIDAZIO-KONTUAK, ETA EKITALDI BEREKO EGOERA-ORRIAK ETA KONTU OROKORRAK ONESTEA

Kontuak 2025eko garilaren 31ko Kontuen Batzorde Berezian aurkeztu ziren, eta agorrilaren 7ko Osoko Bilkurara eraman ziren, behin betiko onesteko. Idazkari kontu-hartzaileak orduko eta oraingo kontuen arteko alde nagusiak azaldu ditu: Alde batetik, kontabilitate-programak sortutako akatsak zuzendu dira, aurreko ekitaldiko azken saldoak ez zirelako behar bezala lekualdatu 2024ko ekitaldiko hasierako saldo gisa; eta bestetik, ez dira kontabilizatu zaharren egoitzari zegozkion 50.000 euroak, 2025ean ordaindu delako, eta, Toki Administrazioaren gomendioari jarraikiz, egokiagoa delako ordainketa benetan egin den ekitaldiari egoztea, hitzarmena 2024an sinatu bazen ere.

2024ko ekitaldian onartutako eskubideak 1.271.676,16 eurokoak izan dira, eta gastuak 1.271.685,06 eurokoak. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 1.198.148,29 eurokoa da.

Halaber, jakinarazi da aurrekontu-egonkortasuna, gastu-araua eta finantza-jasangarritasuna betetzen direla.

de aprovechamientos forestales, por un total de 108.130,56 € y 156.749,90 € respectivamente al haber presentado las ofertas económicamente más ventajosas. Asimismo, se requiere a la empresa la constitución de la fianza definitiva, la presentación de la documentación exigida en los pliegos y el pago o aval correspondiente al 50% del precio para garantizar la correcta ejecución del aprovechamiento.

2- APROBACIÓN DE LAS CUENTAS DE LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO GENERAL ÚNICO Y DE LAS ESTADOS Y CUENTA GENERAL DE 2024.

El Secretario-Interventor explica que las principales diferencias respecto de las cuentas presentadas a la Comisión Especial de Cuentas el 31 de julio de 2025, y trasladadas a la Junta General para su aprobación definitiva el 7 de agosto, son las siguientes: en primer lugar, se han corregido los errores generados por el programa de contabilidad al no trasladar correctamente los saldos finales del ejercicio anterior como saldos iniciales del ejercicio 2024; y en segundo lugar, la diferencia más relevante respecto a lo presentado en la sesión anterior es que no se contabilizan los 50.000 euros correspondientes a la residencia de ancianos, dado que el pago se realizó en 2025 y, siguiendo la recomendación de Administración Local, resulta más adecuado imputarlo al ejercicio en el que efectivamente se efectuó el abono, pese a que el convenio se firmó en 2024.

Los Derechos reconocidos durante el ejercicio 2024 han sido de 1.271.676,16 euros y los gastos reconocidos 1.271.685,06 euros. El remanente de tesorería para gastos generales es de 1.198.148,29 euros.

Asimismo, se informa de que se cumple con la estabilidad presupuestaria, la regla de



Horrenbestez, aho batez erabaki da 2024ko aurrekontu orokor bakarraren likidazio-kontuak eta ekitaldi bereko egoera-orriak eta kontu orokorra onestea.

3- AURREKONTU-ALDAKETAK

Idazkari kontu-hartzaileak 2025eko aurrekontuko kredituak aldatzeko 2. espedientearen edukia azaldu du, eta adierazi du proposamena batez ere diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeko aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak sartzean datzala, "Euskara ikastea" kontu-saila izan ezik, "1.3350.1620000 Euskalduntze Plana" kontu-sailaren kreditua deuseztatuta finantzatzeko dena.

Gehikuntza izan duten kontu-sailak honela geratzeko dira:

- 1.2318.2279900 – Eutsi! Zahartze aktibo eta osasungarrirako proiektua: 4.200 €
- 1.3350.4800002 – Euskara ikastea: 1.800 €
- 1.4390.2600000 – Cederna-Garalur: 1.500 €
- 1.9200.2279901 – Datuen babesa: 2.500 €
- 1.9200.2200004 – Bulegoko material arrunta: 5.000 €
- 1.9200.2200100 – Harpidetzak eta zerbitzuak: 2.000 €
- 1.9200.2269900 – Bestelako gastuak: 1.000 €
- 1.9200.2277000 – Pyramide aholkulariak: 2.000 €
- 1.9200.2279900 – Prebentzio-zerbitzua: 2.000 €
- 1.9200.2260200 – Publizitatea eta propaganda: 1.000 €

Finantzaketa honako hauen bidez egiten da:

gasto y la sostenibilidad financiera.

Con todo ello se acuerda, por unanimidad, aprobar las cuentas de liquidación del presupuesto general único de 2024 y los estados y cuenta general del mismo ejercicio.

3- MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS

El Secretario-Interventor explica el contenido del expediente de modificación de créditos nº 2 del Presupuesto de 2025, señalando que la propuesta consiste en la incorporación de créditos extraordinarios y suplementos de crédito financiados principalmente con remanente líquido de Tesorería, excepto la partida de *Aprendizaje de Euskera*, que se financia mediante la anulación del crédito de la partida 1.3350.1620000 (Plan de Euskaldunización).

Indica que las partidas que se incrementan son las siguientes:

- 1.2318.2279900 – Eutsi! Proyecto de envejecimiento activo y saludable: 4.200 €
- 1.3350.4800002 – Aprendizaje Euskera: 1.800 €
- 1.4390.2600000 – Cederna Garalur: 1.500 €
- 1.9200.2279901 – Protección de datos: 2.500 €
- 1.9200.2200004 – Material ordinario de oficina: 5.000 €
- 1.9200.2200100 – Suscripciones y servicios: 2.000 €
- 1.9200.2269900 – Otros gastos diversos: 1.000 €
- 1.9200.2277000 – Pyramide asesores: 2.000 €
- 1.9200.2279900 – Servicio de prevención: 2.000 €
- 1.9200.2260200 – Publicidad y propaganda: 1.000 €

Explica que la financiación se realiza mediante:



Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia

- Diruzaintzako gerakin likidoa: 21.200 €
- "1.3350.1620000 - Euskalduntze Plana" kontu-saila (1.800 €) deuseztatzea, "1.3350.4800002 Euskara ikastea" kontu-saila finantzatzeko.

Azkenik, idazkariak argitu du aldaketa horiek aurrekontua 2025eko ekitaldiko behar errealekara egokitzeko egin direla, kontu-sail urriak edo hasieran aurreikusi gabeak indartuz, hala nola Cederna–Garalur erakundeari egindako ekarpena eguneratzea, datuen babeserako zerbitzua, artxiboko materiala, lan-aholkularitza eta arriskuen prebentzioa. Azpimarratu du kontu-sail guztiak espezifikoak direla eta gastua zehatza dela, aurrekontua behar bezala gauzatuko dela bermatzeko.

Argibide horiek jaso ondoren, Batzordeak aho batez erabaki du proposatutako aurrekontu-aldaketak onestea.

4- ERRONKARIBARKO ETXEA BIRGAITZEKO PROIEKTUA ETA HAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN AGIRIAK ONESTEA

Amparo Viñuales Gale Batzordeburuak azaldu du arkitektoekin eta laguntza-talde teknikoarekin izandako bileran azken aldaketak adostu eta proiektuan sartu zirela, eta Erronkaribarko etxea birgaitzeko proiektua aurkeztu dela, Osoko Bilkura honetan onesteko. Adierazi du proiektuaren onespena baldintzen agiriaren onespenearekin eta esleipen-prozedura irekitzeko aginduekin batera egingen dela, eta lizitazioa izapidetu aurretik zuinketa-akta gehituko zaiola.

Jarraian, idazkariak baldintza ekonomiko-administratiboen agiriaren berri eman du, eta

- Remanente líquido de Tesorería: 21.200 €
- Anulación de la partida 1.3350.1620000 (Plan de Euskaldunización): 1.800 €, destinada a financiar la partida 1.3350.4800002 (Aprendizaje Euskera).

Finalmente, aclara que estas modificaciones se presentan para ajustar el presupuesto a las necesidades reales del ejercicio 2025, reforzando partidas insuficientes o no contempladas inicialmente, como la aportación actualizada a Cederna–Garalur, el servicio de protección de datos, el material de archivo, la asesoría laboral y la prevención de riesgos. Subraya que todas las partidas tienen carácter específico y gasto perfectamente determinado, garantizando una correcta ejecución presupuestaria.

Trasladada la información se acuerda, por unanimidad, aprobar las modificaciones presupuestarias propuestas.

4- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE REHABILITACIÓN DE LA CASA DEL VALLE Y LOS PLIEGOS QUE REGIRÁN SU CONTRATACIÓN.

La presidenta, Dña. Amparo Viñuales Galé, expone que se somete a aprobación el proyecto de rehabilitación de la Casa del Valle, una vez incorporadas las últimas modificaciones acordadas en la reunión mantenida con el estudio de arquitectura y el equipo técnico colaborador. Señala que la aprobación del proyecto se realizará conjuntamente con la aprobación de los pliegos y la orden de apertura del procedimiento de adjudicación, al cual se añadirá el acta de replanteo previa antes de tramitar la licitación.

A continuación, el secretario informa sobre el pliego de condiciones económico administrativas, realizando las siguientes observaciones, que son aceptadas y aprobadas



ohar hauek egin ditu:

- Urte anitzetako gastu-klausula bat sartu beharko da, kontratua gauzatzeko behar den gastu-konpromisoa jasotzeko. Klausula horren aurrekontu osoa 849.536,77 eurokoa da (BEZik gabe).
- Esleipen-irizpideak egokituko dira, irizpide objektiboak gutxienez % 50era iritsiko direla bermatzeko, eta irizpide sozialak, berriz, % 10era. Horretarako, 5 puntu murriztu zaizkio balorazio ekonomikoari, eta 5 puntu gehitu irizpide sozialei; gainera, genero ikuspegiko klausula bat txertatu da.
- Eskaintzak aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izanen da, 15 eguneko gutxienerako epea gaindituz.
- Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute: Amparo Viñuales, presidentea; Jesus Cruchaga, Carlos Anaut, Maier Velez eta Asier Gil idazkaria, mahaikideak. Beste bi mahaikide ere izanen dira: haien izendapena Nafarroako kontratazioaren atarian argitaratuko da.
- 7.12 klausula aldatuko da: ezarri da ordainketak obra-ziurtagiriak jaso ahala eginen direla, ordainketa bakarra saihesteko.
- Haur Eskolari dagokion klausula aldatu da: zabalik geratu da aldi baterako lekualdatzeko aukera, baldin eta lanak egin bitartean segurtasuna bermatzerik ez badago.

Gauzak horrela, lanen kontratazioa arautuko duten baldintzen agiriaren aldeko txostena egin da.

Bozketa egin aurretik, Urzainkiko

por la Junta:

- Se deberá incluir una cláusula de gasto plurianual, dejando constancia del compromiso de gasto necesario para la ejecución del contrato, cuyo presupuesto total asciende a 849.536,77 euros (IVA excluido).
- Se ajustarán los criterios de adjudicación para garantizar que los criterios objetivos alcancen al menos el 50 % y los criterios sociales el 10 % del total. Para ello, se reducen 5 puntos de la valoración económica y se añaden 5 puntos a criterios sociales, incorporando además una cláusula con perspectiva de género.
- Se fija en 30 días hábiles el plazo de presentación de ofertas, superando el mínimo de 15 días exigido.
- Se concreta la composición de la Mesa de Contratación, que estará integrada por: la Presidenta Amparo Viñuales, los Vocales Jesús Cruchaga, Carlos Anaut y Maier Vélez, y el Secretario Asier Gil. Se añadirán dos vocales más cuya designación se publicará en el Portal de Contratación.
- Se modificará la cláusula 7.12 para establecer que los pagos se realizarán conforme se vayan recibiendo las certificaciones de obra, evitando un pago único.
- En relación con la Escuela Infantil, se modifica la cláusula correspondiente para dejar abierta la posibilidad de traslado temporal en caso de que no pueda garantizarse la seguridad durante la ejecución de los trabajos.

Con todo ello, se informan favorablemente los pliegos que regirán la contratación de los trabajos.

Antes de pasar a la votación D. Tomas Urzainqui Mina, representante de la Villa de Urzainqui, lee y solicita que conste en acta el texto que se reproduce a continuación:



Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia

ordezkari Tomas Urzainqui Minak ondorengo testua irakurri du, eta eskatu du aktan jasotzeko.

"Behin betiko proiektua eta gauzatze-aurrekontua aurkeztu dizkigute, 1.027.926,18 €, balizko aurreikusi gabeko gastuak kontuan hartu gabe. Bi arrazoi erabakigarri hauek behartu gaituzte proiektuarekin eta aurrekontuarekin bat ez etortzera:

1. Batzordearen finantza-baliabideak xahutzen dira: lizitazio-aurrekontua 1.027.926,18 eurokoa da, balizko aurreikusi gabeko gastuak kontuan hartu gabe. Diru kopuru hori Erronkaribarko Batzorde Nagusiaren urteko aurrekontu orokor osotik gertu dago. Gaur egun, finantza-ahalegin horiek premiarik larrienei erantzuteko erabili beharko lirateke, benetako lehentasunei konponbidea emateko, hau da, baliabide ekonomikoak, abeltzaintza, turismoa eta egurra sustatzea eta balioestea eta enplegua sortzea eta bizilagun guztien bizi-kalitatea hobetzea.

2. Erronkariarren ondare historiko-artistiko-identitarioa suntsitzen da: 1.3.3 puntuan aitortzen da Erronkaribarko etxeak «ondare-babes osoa» duela, baina atal horretan bertan, lehen solairuaren egungo egoera deskribatzean, areto nagusia ez da behar bezala deskribatzen eta identifikatzen; ezkutatzen da. Esanahi handiko areto hori, 90 m²-koa, eraitsiko da, nahiz eta ibarreko zenbait pertsonaia historikoren margolanekin apainduta dagoen eta hormak, zoruak, artelanak eta altzariak oso egoera onean dauden. Oso leku enblematikoa da, horregatik bertan garrantzi komunitario eta sozialeko ekitaldiak eta bilerak egiten dira.

1.4.2 puntuan, eraikinaren babesari eta interesari buruzkoan, ez da jasotzen aipatutako areto nagusia. Egungo hormen eta ateen orde,

"Se nos presenta el proyecto definitivo y su presupuesto de ejecución valorado en 1.027.926,18 € más los imprevistos. En resumen son dos los motivos decisivos, que engloban a todos los demás, y nos obligan a no poder dar nuestra conformidad al proyecto y presupuesto:

1. EL DERROCHE DE LOS RECURSOS FINANCIEROS DEL VALLE: El presupuesto de licitación es de 1.027.926,18 € más los probables imprevistos. Lo que se acerca al total del presupuesto general anual de la Junta General Del Valle de Roncal. Actualmente las necesidades apremiantes, de la máxima gravedad y urgencia, exigen que esos esfuerzos financieros vayan dirigidos prioritariamente a solventar las que son verdaderas prioridades, tanto en la recuperación y puesta en valor de los recursos económicos, ganadería, turismo, madera, como la creación de empleo y la exigible calidad de vida de todas las vecinas y vecinos.

2. DESTRUCCIÓN DEL PATRIMONIO HISTÓRICO-ARTÍSTICO E IDENTITARIO DE LOS RONCALESES: A pesar de que en el punto 1.3.3 se reconoce que la Casa del Valle "cuenta con protección integral a nivel patrimonial", sin embargo, al describir en ese mismo apartado el estado actual del edificio en la planta primera, se oculta y no se describe ni identifica correctamente el espacio y significado de la gran sala representativa de 90 m², que va a ser demolida aun siendo el lugar más decorado con grandes óleos de personalidades roncalesas y buenos revestimientos, en sus paredes, suelo, obras de arte y mobiliario. Donde se celebran los actos y reuniones que por su importancia y relevancia comunitaria y social encajan y buscan tan emblemático lugar. El punto 1.4.2 sobre la protección e interés del edificio no contempla ni considera digna de ello la gran sala mencionada. Se sustituyen los tabiques de obra y puertas actuales por placas de pladur y puertas nuevas también se sustituye el parqué de los suelos. El motivo alegado para la demolición de la Sala es poner el ascensor y que se siga ocupando la planta baja definitivamente con la escuela infantil, cuando hay mejor espacio para ella tanto en el



**Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia**

pladurezko plakak eta ate berriak jarriko dira, eta zoruko parketa ere ordeztuko da. Aretoa eraisteko alegatutako arrazoia da igogailua jartzea eta beheko solairuan haur-eskolak jarraitzea, nahiz eta ikastetxe berrian eta eskola zaharrean horretarako espazio hobeak dauden.

Horregatik, Urzainkiren botoa ezezkoa da."

Idazkiari erantzunez, Amparo Viñuales Gale Batzordeburuak azaldu du proiektua idatzi dela Erronkaribarko etxeak duen balio historikoa kontuan hartuta, eta, horregatik, hasieratik Vianako Printzea erakundearekin batera lan egin dela. Erakundeak oniritzia eman die aurreikusitako jardueri, beraz, eraikinaren ondare-balioak erabat bermatuta daude. Erantsi du esku-hartzea beharrezkoa dela irisgarritasuna bermatzeko, segurtasuna hobetzeko eta instalazioak modernizatzeko, bai eta eraikinaren efizientzia energetikoa optimizatzeko ere.

Gainera, gogorarazi du Batzorde Nagusiak aho batez erabaki zuela Erronkaribarko etxea birgaitzea POCTEFA laguntzetan sartzeko eskaera egitea, eta baieztatu du duela gutxi 305.701,55 euro emateko agindua eman dutela.

Carlos Anaut Abadia Izabako ordezkariak adierazi du jarduketa ez dela apeta bat, benetako premia bat baizik, erakundearen beraren bilakaerari, langileen hazkundeari eta zerbitzuak baldintza onetan emateko espazio egokiak izateko beharrari erantzuten diena. Azaldu du egungo areto handia desagertuko bada ere, sabaiaoan antzeko beste areto bat lortuko dela; gaur egun ez da erabiltzen, hain zuzen ere irisgarria ez delako. Gaineratu du Batzorde Nagusiak administrazio-egoitza funtzional, irisgarri eta energetikoki eraginkorra

nuevo colegio de la concentración o en el de las escuelas de Julián Gayarre.

Por ello el voto de Urzainki es no."

Respondiendo al escrito, la presidenta Dña. Amparo Viñuales Galé, expone que el proyecto se ha hecho con el conocimiento de que la casa del valle es un edificio con valor histórico y que por eso, se ha trabajado desde el inicio en coordinación con Príncipe de Viana, contando con su conformidad para las actuaciones previstas, de modo que la preservación de los valores patrimoniales del inmueble queda plenamente garantizada. Añade que la intervención resulta necesaria para asegurar la accesibilidad, mejorar la seguridad y modernizar las instalaciones, así como para optimizar la eficiencia energética del edificio.

Recuerda además que la Junta General, por unanimidad, se acordó solicitar la inclusión de la rehabilitación de la Casa del Valle en las ayudas POCTEFA, habiéndose confirmado recientemente la concesión de 305.701,55 euros.

Por su parte, D. Carlos Anaut Abadía, en representación de la villa de Isaba señala que la actuación no responde a ningún capricho, sino a una necesidad real derivada de la evolución de la propia entidad, del incremento de personal y de la consiguiente necesidad de disponer de espacios adecuados para prestar los servicios en condiciones óptimas. Asimismo, responde que, aunque la sala grande actual desaparezca, se obtendrá otra sala de tamaño similar aprovechando el espacio bajocubierta, actualmente en desuso precisamente por su falta de accesibilidad. Añade, además, que la Junta General del Valle de Roncal precisa una sede administrativa funcional, accesible y energéticamente eficiente, que permita centralizar en un único edificio los servicios que ahora se prestan de forma dispersa, en tres ubicaciones diferentes.

Sin que haya más intervenciones se procede a votar quedando aprobado el proyecto, los



Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia

behar duela, eta orain arte hiru eraikin desberdinetan eskaintzen dituen zerbitzu guztiak eraikin bakar batean bildu.

Beste inork hitz egin ez duenez, bozketa egin da, eta Batzordeak gehiengoz erabaki du proiektua, baldintzen agiriak eta kontratazio-espediterearen izapidetzea onestea, Uztarroze, Izaba, Erronkari, Garde, Burgi eta Bidankozeren aldeko botoekin eta Urzainkiren aurkako botoarekin.

5- FLAVIEN PAGETEK PIRINIOKO MAHAIAN BATZORDEAREN ORDEZKARI IZATEARI UKO EGITEA

Flavien Paget Burgiko alkateak Pirinioko Mahaian Batzordearen ordezkari izateari uzteko aurkeztutako ukoa irakurri da.

Bertaratutako ordezkarietako bakar batek ere ez du bere burua eskaini ardura hori bere gain hartzeko. Uztarrozek jakinarazi du Jone Alastuey Garciak ez duela eragozpenik mahaian parte hartzen jarraitzeko, baina beste ordezkari baten ordezkari gisa soilik. Inor aurkeztu ez denez, 15 eguneko epea zabaltzea erabaki da, Aiza Bulguek boluntariorik ote dagoen esan dezaten.

6- EUSKARA TEKNIKARIAK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN PROPOSAMENA

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira idatzitako adierazpen instituzionala irakurri da. Honela dio:

"Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian, Batzorde honek adierazi nahi du bat egiten duela ospakizunarekin. Izan ere, euskara da gure herriko ezaugarri nabarmen bat. Nolanahi ere, hizkuntza gutxitua den aldetik, erakundeon babesa behar

pliegos y ordenandose la tramitación del expediente de contratación, con los votos favorables de las Villas de Uztarroze, Izaba, Roncal, Garde, Burgui y Vidangoz y el voto en contra de la Villa de Urzainqui.

5- RENUNCIA DE D. FLAVIEN PAGET A REPRESENTACION DE LA JUNTA.

Se da lectura a la renuncia presentada por D. Flavien Paget, alcalde de Burgui, a su representación de la Junta en la mesa del Pirineo. Ninguno/a de los/as representantes presentes se ofrece voluntario/a para asumir esta representación. Desde Uztarroze se comunica que Dña. Jone Alastuey Garcia no tiene inconveniente en continuar participando en la mesa, pero únicamente en calidad de suplente de otra persona. No presentándose nadie como voluntario para asumir esta representación Se acuerda dar un plazo de 15 días para que los Ayuntamientos digan si hay una persona voluntaria que se presente.

6- PROPUESTA DE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PRESENTADA POR EL TÉCNICO DE EUSKERA.

Se da lectura a la propuesta de declaración institucional del día internacional del Euskera que dice como sigue:

"En la antesala del Día Internacional del Euskera, esta Junta quiere manifestar su adhesión a dicha celebración. Y es que el euskera es una característica destacada de nuestro valle. No obstante, y como lengua minoritaria que es, necesita el apoyo de nuestras instituciones.

Cada vez son más las personas vascohablantes en nuestra zona, pero somos conscientes de que tenemos mucho trabajo que hacer para que se consiga la normalización del



Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia

du.

Gero eta gehiago dira euskaldunak gurean, baina jabetzen gara lan handia dugula egiteko euskararen normalizazioa egikaritu dadin. Gure eginkizuna da herritarrek euskaraz bizi ahal izateko bideak irekitzea.

Norabide horretan, gure konpromisoa da lanean jarraitzea gure bizilagunetako inor gera ez dadin euskaraz arreta jasotzeko aukerarik gabe, eta Batzordeko langileek gero eta aukera gehiago izan dezaten euskara lanean erabiltzeko. Horiek horrela, gonbidatu nahi ditugu herritarrak administrazioan euskara erabil dezaten.

Euskara da gure udalerrietako elkarbizitzarako giltzetako bat. Gure betebeharra da euskal hiztunek bereago sentitzea hizkuntza eta euskara urruti dutenei gerturatzea; halaber, bertako euskaldun kopurua handitzea, bai hezkuntza arautuaren bitartez eta bai euskaltegien bitartez.

Dagokigun ardurarengatik, Batzorde honek bere prestutasuna agertu nahi du euskara zabalkundean lan egiteko eta xede bera duten beste erakunde zein entitateekin elkarlanean aritzeko. Auzolanean sinesten dugu. Denon eginahala da beharrezkoa lanbide honetan.

Maiz esaten da euskara altxorra dela, baina ez da museo batean edukitzekoa. Altxorra da euskara ederra den aldetik, erabilgarria eta aberasgarria. Horregatik gaurko egunean Kirmen Uribe idazlearen pasarte bat ekarri nahi dugu gogora:

Emakume hark [Philis Levin] esan zidan bazuela euskararen berri aurretik ere, ezagutzen zituela euskaraz idatzitako testuak. (...) Harri eta zur geratu zen testuan agertzen ziren x guztiekin. Altxorraren mapa ematen du zuen

euskera. Así, nuestra función es abrir vías para que la ciudadanía pueda vivir en euskera.

En esta dirección, nuestro compromiso es seguir trabajando para que ningún vecino o vecina se quede sin la posibilidad de ser atendida en euskera y para que los y las trabajadoras de la entidad tengan cada vez más oportunidades de utilizar el euskera en el trabajo. Por ello, queremos invitar a la ciudadanía a utilizar el euskera en la administración.

El euskera es una de las claves para la convivencia en nuestros municipios. Es nuestra obligación que las personas vascoparlantes sientan la lengua cada vez más propia, y acercar el euskera a las personas que la sientan más lejana; así como aumentar el número de euskaldunes, tanto a través de la educación reglada como de los euskaltegis.

Por la responsabilidad que nos ocupa, esta Junta quiere mostrar su disposición para trabajar en la difusión del euskera y colaborar con otras instituciones y entidades con el mismo fin. Creemos en el auzolan. El esfuerzo de todos y todas es necesario en esta tarea.

A menudo se dice que el euskera es un tesoro, y a algunos les gustaría tenerlo expuesto en un museo. Y sí, es un tesoro por su belleza, utilidad y riqueza. Por eso, hoy recordar un texto del escritor Kirmen Uribe:

Aquella mujer [Philis Levin] me dijo que ya conocía el euskera, que conocía textos escritos en euskera. (...) Se quedó estupefacta con todas las x que aparecían en el texto. «Vuestro idioma da el mapa del tesoro», me dijo, «parece que puedes olvidarte de todas las demás letras y saber dónde está el tesoro si sólo prestas atención a la letra x». Se me ocurrió que aquello era lo más bonito que se podía



Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia

hizkuntzak, esan zidan, gainontzeko letra guztiak ahaztu eta x letran soilik arreta jartzen baduzu altxorra non dagoen jakin dezakezula ematen du. Ezagutzen ez duzun hizkuntza bati buruz esan zitekeen gauzarik politena zela hura bururatu zitzaidan, altxor baten mapa dela.

Kirmen Uribe

7- BATZORDEBURUAREN ETA
BATZORDEEN INFORMAZIOA

Batzordearen Plangintza tailerra

2025eko urrietaren 20an, astelehenean, Batzordearen hurrengo bi urteetarako Plangintza lantzeko egindako bileraren berri eman da. Bilera horretan zazpi hirietako ordezkariak bildu ziren, eta batzorde bakoitzak bere ekintza nagusiak identifikatu zituen. Hona hemen:

- Azpiegituren Batzordea: Ondasunen inbentarioa, Erronkaribarko etxea eta etxolak birgaitzea, Burgiko industrialdea eta Bagomaltako hobekuntzak.
- Industria, enplegu, garapen eta turismo batzordea: Bidexkak mantentzea, astroturismoa, izarren homologazioa eta gaztaren ibilbidea.
- Musika eskola, euskara, kirol, kultura eta ondare batzordea: Irati Irratia, kartel elebidunak, ondarea, UNESCO eta kultur jarduerak.
- Gizarte zerbitzuak eta hezkuntza batzordea: eguneko zentroa, eskola-garraioa, langilegoa sendotzea eta lanpostuak bateratzea.
- Abeltzaintza, basogintza, ingurumen eta Errege Bardeak batzordea: larreen antolamendurako planak eta abeltzaintza-azpiegiturak, Nafarroako Gobernuarekiko harremana hartzari eta artzaintza-eskolari dagokienez.

decir de un idioma que no conoces, que es el mapa de un tesoro.

Kirmen Uribe

7- INFORMACIÓN PRESIDENCIA Y
COMISIONES.

Taller de Planificación del Valle de Roncal

Se informa de la reunión mantenida el pasado lunes 20 de octubre de 2025 con objeto de planificar el trabajo de la Junta los próximos dos años con la asistencia de representantes de los siete pueblos. Se informa que cada comisión identificó sus principales acciones:

- La comisión de Infraestructuras: Inventario de bienes, rehabilitación de la casa del valle y casetas, polígono de Burgi y mejoras en la Mata de Haya.
- La comisión de industria, empleo, desarrollo y turismo: Mantenimiento de senderos, astro turismo, homologación de estrellas y la ruta del queso.
- La comisión de escuela de música, euskara, deporte, cultura y patrimonio: Irati Irratia, cartelería bilingüe, patrimonio, UNESCO y actividades culturales.
- La comisión de servicios sociales y educación: Centro de día, transporte escolar, refuerzo de personal y unificación de puestos.
- La comisión de ganadería, forestal, medio ambiente y Bardenas Reales se centrará en planes de pastos e infraestructura ganadera, la relación con el gobierno de navarra en relación al oso y la escuela de pastoreo.
- La comisión de ordenanzas y servicios administrativos elaboración de convenios, protocolos, desarrollo de ordenanzas y definir funciones de



**Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia**

- Ordenantzen eta administrazio-zerbitzuen batzordea: hitzarmenak eta protokoloak egitea, ordenantzak garatzea eta Batzordeburuaren eginkizunak zehaztea.

Ez zen astirik izan ekintzak lehenesteko eta balizko dirulaguntzak esleitzeko; 2027ko apirila arteko kronograma eta batzordeen eta Batzordeburuaren arteko koordinazioa ere zehaztu gabe geratu ziren.

Bi bilera programatu ziren: 0-3ko familiekin, 2026ko urtarrilaren 17an, haur eskolari eta obrari buruz; eta Babes Zibilarekin, leinabentuen 21ean, sute- eta uholde-arriskuei buruz.

Leinabentuen 21ean Aragoiko ondareari buruzko jardunaldi batean parte hartuko da, Kultur Ondasunen Kudeaketa eta Koordinazioko zuzendariorde nagusiarekin UNESCOri lotutako espedienteak aztertzeko.

Batzordea Jubiloteketako begiraleak lanean hasteko baiezkoa eman zain dago.

Haur eskolaren behin-behineko lekualdatzea eta gurasoekin bilera

Jakinarazi da aurkako txostena jaso dela, Erronkaribarko etxea birgaitzeko lanek iraun bitartean 0-3 haur eskola eskola zaharrera behin-behinean lekualdatzeko aukerari buruzkoa. Hori dela eta, beste txosten bat eskatu da, eskola berrira lekualdatzeko aukera azter dadin.

Bestaldetik, jakinarazi da haur eskolako bi amak instantzia bat aurkeztu dutela gaiari buruzko informazioa eskatzeko. Hori dela eta, informazio-bilera bat egingen da leinabentuen 17ko goizean.

Suteen eta uholdeen prebentzioa

Jakinarazi da Nafarroako Gobernuak Babes Zibilaria bilera bat eskatu zaiola suteen eta

presidencia.

La reunión concluyó sin tiempo para priorizar acciones ni asignar posibles subvenciones, quedando pendiente definir cronogramas hasta abril de 2027 y la coordinación entre comisiones y Presidencia. Asimismo, se programaron reuniones complementarias: con familias de 0-3 años el 17 de enero de 2026 sobre el centro y la obra; con Protección Civil el 21 de noviembre para riesgos de incendios e inundaciones; y la asistencia a una jornada de patrimonio aragonés el 19 de noviembre, para tratar con la subdirectora general de Gestión y Coordinación de Bienes Culturales los expedientes relacionados con la UNESCO. También se espera confirmación sobre la incorporación del monitor de Jubilotecas.

Traslado provisional de la escuela infantil y reunión con padres y madres.

Se informa de la recepción de un informe desfavorable respecto al traslado provisional del centro 0-3 años a las Escuelas Viejas con motivo de las obras de rehabilitación de la Casa del Valle. Ante esta situación, se ha solicitado un nuevo informe para valorar la posibilidad de realizar el traslado a las Escuelas Nuevas. Asimismo, se comunica que dos madres de la escuela infantil presentaron una instancia solicitando información al respecto, por lo que se ha organizado una reunión informativa el día 17 de noviembre por la mañana.

Prevención de incendios e inundaciones.

Se informa que se ha solicitado una reunión con Protección Civil del Gobierno de Navarra para tratar cuestiones relacionadas con la prevención de incendios e inundaciones en el valle. La reunión se celebrará el 21 de noviembre en Pamplona y se abre la invitación a todas las villas para que acuda cualquier representante que lo considere oportuno.

Candidatura Tributo de las tres vacas a la



**Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia**

uholdeen prebentzioari lotutako gaiak aztertzeko. Bilerak leinabentuen zinean egingen dira, Iruñean, eta hiri guztiei gonbidapena egin zaie egoki iritzitako edozein ordezkari parte har dezan.

UNESCO eta Hiru behien zergaren hautagaitza

Jakinarazi da Aragoiko Gobernuak Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak jardunaldi bat antolatuko duela leinabentuen zinean, Huescan. Jardunaldi horretan, besteak beste, UNESCOren hautagaitzak izapidetzeko prozedurak eta irizpideak jorratuko dira. Jardunaldian parte hartuko du Maria Agundez Leria Kultura Ministerioko Kultura Ondasunen Kudeaketa eta Koordinazioko zuzendariorde nagusiak, UNESCOren espedienteen zuzeneko arduraduna. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak berariaz animatu du bertara joatera, uste baitu aukera egokia dela hiru behien zergaren hautagaitza aztertzeko. Ansoko alkate anderea joanen da. Tomas Urzainqui bertaratuko dela baieztatu du.

Jubilotekek

Jubiloteken programa 4 herritan egingen da: Uztarroze, Izaba, Urzainqui eta Erronkari. Jakinarazi da, begirale lanpostua betetzeko bi deialdi egin ondoren, zerrendan pertsona bakarra dagoela. Batzordea harekin harremanetan jarriko da, lanpostua betetzeko prest ote dagoen jakiteko.

Gora jotzeko errekurtoa, Ordenantzak onesteko erabakiaren aurka

Jakinarazi da Tomas Urzainqui Minak eta Juan Carlos Urzainqui Salvochek, Urzainkiko Aiza Bulguaren ordezkari gisa, gora jotzeko errekurtoa jarri dutela, ordenantzak onesteko

UNESCO

Se informa de que el 19 de noviembre tendrá lugar en Huesca una jornada organizada por la Dirección General de Patrimonio Cultural del Gobierno de Aragón, en la que se abordarán, entre otras cuestiones, los procedimientos y criterios para la tramitación de candidaturas a la UNESCO. A la jornada asistirá también Dña. María Agúndez Leria, Subdirectora General de Gestión y Coordinación de Bienes Culturales del Ministerio de Cultura, responsable directa de los expedientes UNESCO por lo que desde el Gobierno de Navarra se anima expresamente a la asistencia, al considerar que es una oportunidad adecuada para tratar igualmente la candidatura del Tributo de las tres vacas. Se informa que asistirá Blanca, alcaldesa de Ansó. Tomas Urzainqui confirma su asistencia.

Jubilotekas

Se informa que el programa de Jubilotekas únicamente hay grupos en 4 pueblos, Uztarroze, Izaba, Urzainqui y Roncal. Así mismo se informa que actualmente, tras dos convocatorias realizadas, solo hay una persona en la lista disponible para desempeñar el puesto de monitor. Se contactará con ella para saber si está dispuesta a desempeñar las funciones de monitor de Jubiloteka.

Recurso de alzada contra la aprobación de las ordenanzas.

Se informa de la recepción del recurso de alzada presentado por D. Tomas Urzainqui Mina y D. Juan Carlos Urzainqui Salvoch, en calidad de representantes del Ayuntamiento de Urzainqui, contra el acuerdo de aprobación de las ordenanzas. El recurso se trasladará a la letrada Libertad Francés para su estudio y la presentación de las posibles alegaciones.

8- RUEGOS Y PREGUNTAS



**Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia**

erabakiaren aurka.

Errekurtsoa Libertad Frances letratuari bidali zaio, hori aztertu eta balizko alegazioak aurkez ditzan.

8- GALDE-ESKEAK

EZ DAGO.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 19:15ean Batzordeburuak bilkura amaitu du, eta honako akta hau idatzi da.

Eta dagokion tokian jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin da, ontzat emana eta zigilua jarrita, eta ibarreko Aiza Bulguei bidali zaie, iragarki-oholetan jar dezaten.

Erronkarin, 2025eko leinabentuaren 21ean

No hay.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las diecinueve horas y quince minutos del día señalado al inicio, por la Sra. presidenta se levanta la sesión, redactándose la presente Acta.

Y para que conste donde proceda, se expide la presente certificación, Visada y Sellada, y se envía a cada uno de los Ayuntamientos del Valle, para su exposición en el Tablón de Anuncios, en Roncal a 21 de noviembre de dos mil veinticinco.